



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Konpetentzia digitalak

Gradu ikasleentzako formakuntza materialak

4. Segurtasuna

4.4. Ingurunea babestea:

4.4.1. Energia aurrezteko gailuak nola erabili

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala



Bestelakorik adierazi ezean, itemaren baimena horrela deskribatzen da: Aitortu-EzKomertziala 3.0 Espainia, 2020

Segurtasuna.
Ingurunea babestea.

Energia aurrezteko gailuak nola erabili



CRUE

REBIUN


Red de Bibliotecas Universitarias

AURKIBIDEA


- Gailuen energia kudeatzeko aukerak
 - Eramangarriak
 - Mugikorrak
- Akatsak gailuetako baterien erabileran
- Bateriak optimizatzea

HELBURUAK


Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:




GAILUEN ENERGIA KUDEATZEKO AUKERAK: eramangarria



Normalean, ordenagailu eramangarriarekin lan egiteari uzten diogunean, estalkia ixten dugu pantaila itzaltzeko, baina, ordenagailuaren konfigurazioaren arabera, itzali egin daiteke, eten, hibernatu... Aukera horiek benetan baliagarriak dira, gainera, bateria aurrezten dutelako.



GAILUEN ENERGIA KUDEATZEKO AUKERAK: eramangarria



orduak

Atsedeen modua: energia-kontsumoa ahalik eta gehien murrizten du eta berrabiarazte azkarra ahalbidetzen du.

egunak

Itzaltzea: Berrabiatze motelagoa eta zero kontsumoa.

Nola aukeratu aukerarik onena?

Erantzuna argia da: ordenagailu eramangarria berriz erabili arte pasako den denboraren arabera.

GAILUEN ENERGIA KUDEATZEKO AUKERAK: mugikorra

- Hegazkin modua erabiltzea: funtzio honek konexio guztiak desaktibatzen ditu. Zure telefonoak denbora guztian seinalea bilatzea saihesten du, baina erabiltzen jarrai dezakezu, adibidez, musika entzuteko edo iratzargailua jartzeko.
- Desaktibatu WiFia: datuek bateria gutxiago gastatzen dute zain egoteko edo gutxi nabigatzeko; WiFia, berriz, gomendagarria da modu intentsiboan nabigatzeko.
- Jaitsi pantailaren distira leku ilunago batean zaudenean.
- Desaktibatu datu mugikorren erabilera aplikazio batzuetan.
- Desaktibatu beharrik ez duzun aplikazioen jakinarazpenak.
- Desaktibatu Bluetooth-a erabiltzen ez duzunean.
- Energia aurrezteko modua aktibatu.



iPhone zein Android mugikorra baduzu, aholku erraz eta eraginkor hauek bateria aurrezteko eta zure telefonoaren autonomia maximizatzeko balioko dizute.

GAILUEN ENERGIA KUDEATZEKO AUKERAK: mugikorra

- Bigarren planoan dauden aplikazioak eskuz itxi:

- **Android**



- Mugikorraren aurrealdean, sakatu **funtzio-tekla**, normalean **bi laukizuzen gainjarrita** agertzen dena, edo horren baliokidea, zure mugikorraren fabrikatzailearen eta modeloaren arabera.
 - Agertuko zaizun goitibeherako menuan, egin klik aplikazioak administratzeari lotutako aukeran. "**Aplikazio aktiboak**" pantaila irekiko da.
 - Azkenik, egin klik "**amaitu dena**" aukeran, martxan dauden aplikazio guztiak ixteko.


- **iPhone**



- Sakatu bi aldiz jarraian zure iPhoneko "**Home**" botoia.
 - Irekita dituzun aplikazio guztiak ezkerretik eskuinera agertuko dira karrusel batean. Aukeratu itxi nahi duzuna eta mugitu irudia gorantz. Horrela itxiko da.
 - Errepikatu aurreko urratsa itxi nahi duzun app bakoitzarentzat.

Terminal guztietan pantailak kontsumitzen du gehien, eta beti piztuta egon ohi da. Inpaktu hori minimiza dezakegu, telefonoa blokeatzeko itxaronaldia laburtuz.

ARAZOAK BATERIEKIN




Zure mugikorra gau osoan uzten duzu, baina goizean bateria-maila ez da % 70etik gorakoa?



Bat-batean itzaltzen da bateria %30ean izanda?



Ezin duzu zure eramangarriarekin lan egin kargagailuarekin entxufatuta egon gabe?



Ez al du kargatzen, nahiz eta korrontean entxufatuta egon?

Ziur horrelako egoeraren bat izan duzula.

ENERGIA KONTSUMITZEN DUTEN ERROREAK



Eguneratu gabeko software bat zure gailu mugikorrean, eguneratze berriek energia aurrezteko teknologiak baitakartzate.

WiFi konexioa automatikoki kudeatzea.


Instalatutako aplikazioak, dagoeneko erabiltzen ez dituzunak, edo ageriko edo pop-up formako iragarkiak dituzten doako aplikazioak.

Egoera edo kalitate txarra duen mikro SD batek normalean baino energia gehiago behar izan dezake behar bezala funtzionatzeko.

Gure "Smartphonearen" bibrizio funtzioa.

Zure gailua eta WhatsApp bezalako aplikazioak pantaila-irudi batekin pertsonalizatuta izatea.

BATERIA OPTIMIZATZEKO AHOLKUAK



Saihestu muturreko tenperaturak:

- Egokiena 16º eta 22º gradu artekoa da. 35 ºC-tik gorako tenperaturak bateriaren ahalmena kaltetu dezake.
- Leku hotz batean bateriak gutxiago iraungo du, baina aldi baterako egoera da.



Kargagailu originalak erabili:

- Kargagailua kable bat eta entxufe bat baino gehiago da; tentsioak, gehiegizko beroketak eta gainkargak zaintzen dituzte, eta, beraz, elementu horietan inbertitzea komeni da.



Ez kargatu mugikorra babes-zorroekin:

- Zure gailua gehiegi berotu dezakete eta zure bateriari eragin diezaiokete.



Zure gailua denbora luzez gorde behar baduzu:

- Bateria zaintzeko, itzalita eta karga erdiarekin gorde, bateria guztiz deskargatuta dagoela egiten dugu, eta etorkizunean berriro kargatzea ezinezko egiten duen erabateko deskarga egoerara eraman dezake.
- Gorde ezazu leku fresko eta lehor batean.



Ez utzi mugikorra gau osoan kargatzen:

- Litioa "kristalizatu" egin daiteke eta bateriak bizitza erabilgarria gal dezake.

ETA AZKENIK...






Ez utzi bateria %100era arte kargatzen; izan ere, hori gertatzen denean, **tentsioa altuagoa da eta bateria estresatu eta higatzen duen energia handiagoa sortzen du.**

[Battery Universityko](#) espezialisten arabera, normalean %100ean kargatzen den bateria batek 300 eta 500 karga-ziklo artean izango ditu, eta bere edukieraren %70ean kargatzen den bateria batek 1.200 edo 2.000 zikloraino iraungo du.

Ez utzi erabat deskargatzen ere. [Samsungek](#) gomendatu du hobe dela bateria %20tik behera jaisten ez uztea.

Bateria integratuak dituzten gaur egungo mugikorrek eta eramangarriek arreta handiagoa behar dute bizitza luzatu ahal izateko.

GEHIAGO JAKITEKO...

-  Ordenagailua eten, hibernatu edo itzali, zer egin behar dut?
-  Zein da etetearen eta hibernatzearen arteko aldea Windowsen?
-  8 aholku erabilgarri zure Smartphonean bateria aurrezteko
-  11 mito eta errealitate eramangarrien baterietan
-  Bateriaren autonomia eta bizitza erabilgarria optimizatzen ditu



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu